

Osteguna, 2011ko maiatzak 19 - 09:02

Plaza

bilatu... Bilatu

Hasiera BerriaTB Parte Hartu Blogak Bereziak Kanalak Zuzenekoak  

Paperekoa PDFn Iragarki laburrak Hitzza

Harian | Iritzia | Kirola | Agenda | Plaza

Berria.info » Papereko Edizioa » Plaza

2011-05-17

Euskal museoek ekitaldi berezi batzuekin ospatuko dute Museoen Eguna

'Museoak eta memoria' lelopean ospatuko da Nazioarteko Museoen Eguna bihar, munduko hainbat museotan

LANDER MUÑAGORRI BILBO

Museoen Eguna

Mundu osoko museoek euren eguna ospatuko dute bihar, eta Euskal Herriko museo gehienek egingo dute bat deialdi horrekin. Aurtengo Nazioarteko Museoen Egunaren leloa *Museoak eta memoria* da. Mezu horrekin, museoek euren barnean dituzten objektuekin istorio ugari eta lekuan lekuko memoria gordetzen dutela azpimarratu nahi dute. Objektu horiek gure kultur eta natur ondarearen adierazpenak dira; horietako batzuk hauskorrak dira, eta beste asko arriskuan daude. Horretarako, memoria indibidual eta kolektibo hori ezagutzeko, Museoen Nazioarteko Egunarekin bat egingo duten museoetara doan sartu ahal izango da. Horretaz gain, museoek hainbat ekimen berezi egingo dituzte.



Asteburuan egingo du bat Nazioarteko Museoen Egunarekin Gasteizko Artium museoak. / RAUL BOGAJO / ARGAZKI PRESS

Bilboko Arkeologia Museoak, esaterako, doako bisita gidatuez gain, galdera joko bat proposatuko die bisitariei. Arabako Natura Zientzien Museoak, berriz, 25 urte beteko dituela eta, ekitaldi bereziak antolatu ditu baita ere, doako bisita gidatuez gain. Natur zientziak gizarteratzeko tailerrak egingo dituzte bihar, eta, gauean, 20:30etik aurrera, Gasteiz Big Band taldeak kontzertua emango du Jimmy Jazz eszena aretoan.

Irungo Oiasso erromatar museoak (Gipuzkoa) arkeologian sakontzeko ekimenak antolatu ditu. Biharko eta larunbaterako antolatu ditu ekitaldi guztiak. Aurkikuntza arkeologikoei aplikatzen zaizkien tratamenduei buruzko erakusketa bat egingo dute; era horretan, Irunen egin diren azken aurkikuntza arkeologikoak bertatik bertara ezagutzeko parada izango dute bisitariek. Ingurutzeta meategietara irteera egitea ere proposatuko die bisitariei; 17:00etan abiatuko dira. Larunbatean, berriz, altxorren bila ibiliko dira bertan biltzen diren bisitariak, 12:00etatik aurrera, museoaren sekretuak ezagutzeko.

Astigarragako Sagardoetxean (Gipuzkoa), urtaro bakoitzarentzako sortutako laborategi bat aurkeztuko dute. Urtaroko laborategian, une bakoitzean sagardoaren prozesuaren nondik norakoak azalduko dituzte. Eugenio Elorza, Aitor Etxeandia, Fabienne Feutry eta Josu Osa adituek emango dute horren berri, 11:30etik aurrera.

Biharkoa egun ona bada ere edozein museo bisitatzeko, hain justu Ordiziako D'elikatuz museoa bisitatzeko izango da egun aparta biharkoa. Museo horretan elikagaiak eta gastronomiako atalak lantzen dituzte. Ordiziako feriaren garapena ere erakusten dute bertan, eta, bihar, asteazkena izanik, Goierriko herri horretan ere feria eguna izango da, asteroko legez.

Iruñeko Nafarroa museoan, *Zaragueta fotógrafos* erakusketaren inguruko hitzaldia emango dute. Erakusketaren nondik norakoak xehe-xehe azaltzeko, bertan izango da Francisco Javier Zubiaur komisarioa. Horrez gain, Karlista museoan haurrentzako tailerrak egingo dituzte, gure historia gaztetxoei zabaltzeko.

Baita asteburuan ere

Museoaren Eguna aste erdian suertatu denez, museoek eskaintzak asteburuetan ere egin dituzte. Joan den asteburuan hainbat ekimen egin ziren, eta datozenean ere beste hainbeste egingo dute beste museo batzuek.

Gasteizko Artium museoak, esaterako, eskaintza berezia egingo du ostiral eta larunbatean. Museoek gizartearen kultur ondareak gordetzeko egiten duten lan garrantzitsua nabarmentzeko, *Museoa eta oroitzapena(k)* ekimena antolatu dute. Ostiralean, 19:00etan, Fernando Castrok hitzaldia egingo du, eta, hori amaitutakoan, *Sugandila buztana* erakusketa inauguratuko dute. Bertan bisita gidatuak

izango dituzte ikusleek asteburuan. Larunbatean, berriz, dantzako inprobisazioak egingo dituzte zenbait erakusketaren inguruan. Ember taldeak eta Izaskun Santamaria, Jorge Lastra, Helena Golab eta Amaia Pascual dantzariak hartuko dute parte bertan. Amaitzeko, 21:30ean, Bartzelonako L'escombrofonica taldeak kontzertua eskainiko du museoan.

Hasiera | Euskal

MUSEOEN EGUNA

BIHAR

- **Oiasso erromatar museoa (Irun, Gipuzkoa).** Aurkikuntza arkeologikoei aplikatzen zaizkien tratamenduei buruzko erakusketa. Ingurutzea meategira irteera eta altxorren bila jolasa.
- **Sagardoetxea (Astigarraga, Gipuzkoa).** Urtaro bakoitzean sagardoaren ekoizpena nola egiten den erakutsiko dute.

ASTEBURUAN

- **Artium (Gasteiz).** *Museoa eta oroitzapena(k)* ekimenaren barruan, *Sugandila buztana* erakusketa inauguratuko dute. Museoko erakusketen gainean dantza inprobisazioak egingo dituzte, eta L'escombrofonica kontzertua emango du.

Herria | Ekonomia | Mundua | Kirola | Kultura | BerriaTB | Parte Hartu | Blogak | Bereziak | Paperekoa |  

© Berria.info - Euskal Editorea S.L.
Martin Ugalde Kultur Parkea, Andoain 20140
Telefona: 943 304 030 / Faxa: 943 590 172
berria@berria.info - www.berria.info
Lege Informazioa



Laguntzaileak:

